

Emakumearen Sustapen Zentroaren Ikasle Ohien Elkarte

Gaur egun harremanik ez duten arren, Emakumearen Sustapen Zentroarekin lotura estua izan zuen elkarte honek hasieran. Garai horretan, Emakumearen Etxea martxan jartzeko lan handia egin zuen Emakumearen Asanbladarekin batera eta herrian konpromiso soziala pizten lagundu zuen, besteak beste.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

80. hamarkadako amaieran lortu genuen legezko egitea. Aurretik, Emakumearen Sustapen Zentroko formazioa bukatzen zuten ikasle bi aukeratzen ziren urtero eta horiek arduratzen ziren ikasle ohien elkarte kudeatzeaz.

- Zenbat kide zarete?

Denborak aurrera egin ahala aldaketa nabarmenak egon dira gizartean eta, batez ere, emakumeen formazio beharretan, eta horrek eragina izan du gure taldekide kopuruan. Gaur egun 30 bazkide inguru ditugu eta horietatik seik zuzendaritza batzordea osatzen dugu. Guztiok 6 euroko kuota ordaintzen dugu urtean.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Sortu ginenean finkatu genituen helburu berdinak ditugu oraindik ere:



Zuzendaritza batzordeko kide batzuk

emakumeek beste inon jaso ezin dituzten ezagutzak eskuragarri ipintzea. Horretarako hitzaldiak eta ikastaroak antolatzen ditugu. Aurten elkartekoa ez den pertsona bat arduratzen da horiek guztiak kudeatzeaz, gure iradokizunak jarraituz, jakina.

- Zeintzuk gai jorratzen dituzue ikastaro horietan?

Denetarik: medikuntza, politika, legeak, heziketa, hirigintza... Jendearen eskaerara moldatzen gara.

- Txangoak egiten dituzue?

Bai, bi txango egiten ditugu urtero. Udaberrian txango kulturala egiten da eta aurtengoan 'AlhóndigaBilbao' bisi-

tatzeko aukera izan dugu. Ikasturte amaieran, beste txango bat egiten dugu: Portugalete aldera joan gara oraingoan eta 35 emakume baino gehiagok hartu dute parte.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Gaur egun Emakumearen Topalekuan biltzen gara, hilean behin.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Interesa dutenek zuzendaritza batzordeko kide den Nastaren telefonora deitu dezakete (943173527) edo Emakumearen Topalekuan galdetu (Izelaieta kalean).

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78